



Goizuetako Udalbatza, Herriko Etxeko Bilkura Aretoan, **bi mila eta hemezortziko ekainaren 18an** eguadiako hiruak eta laurden direlarik **aparteko bilkuran** biltzen da ondoren aipatzen diren partaide hauekin:

MARIA PILAR APECECHEA ELIZALDE

JOSU GARMENDIA RECALDE

Eta Udaletxe honetako alkatea, UNAI LOIARTE ANSA

Idazkari lanetan, Miriam Arozena San Miguel, Goizuetako ordezkari idazkaria.

Alkateak eguneko aztergai zerrendako lehenengo puntuarekin hasteko agindua eman du

1.-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatu duen, eta Interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik Nafarroako toki entitateei emanen zaizkien diru-laguntzen deialdiko dirulaguntzaren eskaera.

2018ko maiatzaren 21eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak enamdako 2051/2018 Ebazpena, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik Nafarroako toki entitateei emanen zaizkien diru-laguntzen deialdia arautzen duena.

Goizuetako Udalak, Zubimuxu Aterpetxearen arretaz eta bertan kokatutako informazio guneaz arduratzeko lanetarako, pertsona baten beharra ikusi du, lau hilabetetarako, deialdiaren 3. oinarrian aurreikusitako profila duen pertsona bat kontratatzea egoki iritziaz.

Pertsona honek egingo dituen lanen memoria bat prestatu da. Memorian adierazten den bezela, Zubimuxu Aterpetxearen arretaz eta bertan kokatutako informazio guneaz arduraratuko da kontratatzen den pertsona.

Guzti hau kontutan izanik, udalbatzak aho batez erabaki du:

1.Memorian zehaztu diren eta egin behar diren lanak onartzea, ez delarik beharrezkoa, lan hori aurrera eramateko funtzio publikoen erabileran edo administrazio publikoen interes orokorren zaintzan diharduen langilerik kontratatzea, 6.1 a) oinarrian aurreikusitako terminoetan



2. Aipatutako dirulaguntza deialdiak arautzen duen diru-laguntza eskatzea, dagokion izapidetzekin hasiaz.

3. Hautaketa eta kontratazioa arautuko duten oinarriak onartzea.

Alkateak eskari edo galderarik ba ote duten galdetzen die udalbatzako kideei. Galdera edo eskaririk egiten ez denez, eguandiko hiruak eta erdiak direnean alkateak bukatutzak eman du bilera, nik, Idazkariak ziurtatzen dut